

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko maiatzaren 17a

*



Rigoberta Menchu eta Pili Yoldi liburuaren aurkezpenean Guatemalan.

MEDICUS MUNDI

Pili Yoldi, Guatemalako historiaz mintzo

■ PILI YOLDI kazetari nafarrak *Juan Coc, Principe Q'Eqchi* (1945-1995) liburua aurkeztuko du gaur Iruñean. Guatemalan apirilaren 9an aurkeztu zuen, Rigoberta Menchu Bakearen Nobel saridunarekin batera, besteak beste, Rigoberta Menchu Tum Fundazioaren laguntzari esker argitaratu baitu liburua. Juan Coc lider guatemalarraren bizitzaren bidez, Guatemalako azken 40 urteetako historia jaso du Pili Yoldik

liburu honetan. Beste ehun mila lagun inguru bezala, Mexikon errefuxiatu izan zen Juan Coc, gerratik ihesi. 25 urte bete arte alfabetatu gabea, baina Gobernuarekin itzuli ahal izateko akordioa sinatzera iritsi zen. 1993an Guatemalara itzuli ondoren, Aurora 8 de Octubre etxaldean komunitate berria sortu zuen. Bertan zendu zen, bere jendearen artean, 1995eko urtarrilean. ■

Zubian barna

BINGEN AMADOZ



Hiri laztana, hiri madarikatua: sortzen didazun maitasunagatik zoragarri, ukatzen didazun zorionagatik kupidagabe. Bi norabideko kale bikoiztuak dituzun heinean hain gertu eta erakusten didazuñ jokabide bihotzgabea niregana heltzen den neurrian hain urrun.

Hodei-ile beltzez estaliriko zure kasako-hezurraren sarrera zabaleko karrika estuetatik goxoki sartuko lirateke nere eskuak, argitasuna eta bizitzaren gorabeherak gordetzen dituen zoru-larrua ferekatu ahal izateko.

Basamortuko zabalgunek gogora dakarzkidaten zure begi ilunetan emanen nituzke lan-orduak, lantegi horiek baitira zuretzat lehen eustarri, osotara erakargarri eta baita aberats egiten zaituztena. Eta zure ahoan sartuko nintzateke iturriaren bila, egarria itzaltzeko beharra ez baita txikia izaten.

Horrenbeste gauzatan trebezia gutxikoak diren zure eskuetako bideziorretan atsedena hartuko nuke, behatzek esku bakar bat osatzen duten moduan, zure auzo guztiak ere osotasun bakar

Hiri bakarra

batean biltzen diren horretan. Eta sabel azpiko zure harizti eta pagadietan galduko nintzateke, baso eta parke horiek gordetzen duten erreka topatu arte.

Goxo xarmanta duzun irriaren berdeguneetan plazerra hartzen dut, bertan sentitzen baitira gainean, zuzen, eguzkiaren izpiak.

Nire mintzo-eskaerari berriz ixiltasunaren harresi ia gaindiezinak ezartzen dizkiozu.

Kutsu erromantiko ukazina dūten hilerriko pasealdietan eroso nauzu hizketan.

Zuregan eta zurekin bizi izandakoak ahazteko eskatzen didazun aldiro, hiri mingarri.

Elurte handiko edertasunak zekarkigun babesteagatik, hiri maitagarria.

Krudela, ordea, hurrengo egunean, damaturik, aterpea ukatzen didazunean.

Zinetoki eta liburutegiz beteriko-hiri entretenigarria, asteko zazpi egunetan zeozertan beti lanpeturik bizi dena.

Hiri jeloskorra. Beste hirietan izanda-

ko gozamenak barkatzen ez dituen.

Hiri alaia, Pirinioetako magalean egozteagatik beti kantu, dantza eta festarako prest dagoena.

Hiri maltzur eta zuhurra, bere barnealdeko kezka eta lizunkeriak soilik ilargipean ateratzen dituen.

Hiri sanoa, euskaltzalea, euskara inoiz galdu ez duena eta heredentziaz jaso baino, ikastolan eta bere kabuz landa duena, eta horrexegatik hain nirea.

Hiri alkoholzalea. Kurda hitzaren esanahi zabalduari jarraituaz, soilik kurdu-tarrek salduriko garagardoaz horditurik, azpiko sotoak astintzera eta bere xamurtasun apurak agertzera ausartzen dena.

Hiri paregabea, bakarra. Bedeinka zaitzatela De profundisen sortzailea eta dantza makabroaren musikari asma-tzaileak. Haien itzala hurbilduko dizut eta zure altzoan bizi direnak maitatzen ikasten duzunean, porlanezko zure erraiek jakinen dute zer den gizakiaren zoriona eta baita zeinen erraz egiten zaion zoriontsu... edota zorigabea. X

GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Burlata: Exkixu eta Nahi ta Nahi ez taldeek kontzertua eskainiko dute larunbatean, hilak 18, Ezkabazabal plazan, 21.00etatik aurrera, eta Euskalerrria peñaren eskutik. Ez da sarrerarik ordaindu beharko.

Gares: Accept eta Vicious Rumors taldeek kontzertua eskainiko dute larunbatean, hilak 18, Funda Mental aretoan, 23.00etatik aitzina. Sarrera aurretik erostekoa 2.000 pezeta ordaindu beharko dira; leihatleak, aldiz, 2.300.

Falces: Mikel Erentxun kantari ariko da larunbatean, hilak 18, herriko pilotalekuan, 23.00etatik aurrera. Sarrerak aurretik 1.600 pezeta truke eskuratu ahal izanen dira, eta bertan 1.800 pezeta.

Barañain: Oskorri taldeak *Parte hartzeko kontzertu demokratikoa* eskainiko du hilaren 22an Retegi pilotalekuan. Bertaraten direnek Oskorriekin batera kantari aritzeko parada izanen dute.

ANTZERKIA

Arbizu: Iruña Pequeño Teatro konpainiak *Jaberik gabeko zopa-ontzia* obra taularatuko du larunbatean, hilak 18, herriko elkartearen, 17.00etan.

Tafalla: Gus Marionetas txo-txongilo taldearen *La princesa de fresa* obra ikusgai izanen da gaur, hilak 17, Zangozako Güesera aretoan, 21.30etatik aurrera.

ERAKUSKETAK

Iruña: TBO argitaratutako Franz Doktoarearen asmakizunak Gotorlekuko Armen aretoan ikusgai izango dira hilaren 29ra arte, lanegunetan 18.00etatik 20.30etara, eta jaiegunetan 12.00etatik 14.00etara.

Zangoza: Alfonso Askunzeren lanak hilaren 28ra arte izanen dira ikusgai herriko Kultur Etxean.

Iruña: Asun Goikoetxearen mar-goak hilaren 26ra arte izanen dira ikusgai NUPen Karlos III.aren etorbideko erakustaretoan.

Zizur Nagusia: Mikel Meleroren lanak herriko Kultur Etxean izanen dira ikusgai maiatzaren 26ra arte.

KANPALDIA

Burlata: Itoizko herriaren eta *solidarioen* aldeko taldeak antolatutik, kanpaldia izanen da hilaren 18an eta 19an herriko sarrean. Herri bazkaria, kalejira eta beste hainbat ektaldi izanen dira horren barruan.

IBILALDIAK

Iruña: Udalak eta Nafarroako Goi Mendi Eskolak antolatutik, Lizara-Estanes-Pagoen Basoa-Candanchu ibilaldia egingen dute. Izena eman nahi dutenek dei dezatela 10-78-48 telefonora.

nafarkronika

Alberto Barandiaran

Fikzio erakargarria

Nik uste dut, hondarrean, UPNren aurrean makurtuko dela Aznarren alderdia. Batez ere gehiago oihukatzen dutelako. Hori dudan jartzen duenak ez ditu ikusi Del Burgo, Sanz eta Jaime batera oihuka. Ezta nik ere, baina imajinatzen ahal ditut hirurak Madrilgo Genova kaleko egoitzan, Aznarren aurrean eserita, eta nafar berezitasunak azpimarratuz.

Gainera, ez dut uste EAJK ere horrelako presio berezirik egingo duenik elkarlanerako hitzarmen honen alde, ez orain dituen harremanak hausterainokoa, behintzat. Segur aski, ballagarriagoak —garrantzitsuagoak— izango zaizkio sinatu berri dituen akordioak oso ondo zehaztuta ez dagoen erakunde hau baino, eta, toki guztietatik azpimarratu den bezala, gai honetaz ez dute deus ere hitz egin popularrek eta jeltzaleek. Normalena litzateke PPK ezetz

esatea, baina Kongresuan gehiengoa ez duenez, azkenan onartua izatea akordioa. UPNk planteatzen duen konstituzionaltasunari buruzko epaia iristen denerako...

Nolanahi ere, oker egotea ere plater gozoa litzaidake, hau da, PP kontra ez azaltzea. Batez ere, ikusteko zer aurpegi gertatzen zaien Sanzen lagunei. Bere mehatxuak muturreraino eramaten badituzte —PPekin akordioa hausten badute—, ikustekoa izango litzateke erregionalisten postura, batez ere Del Burgorena. Fikzio samarrekoa, abokatua PPren betiko gizona izan delako Nafarroan, baina fikzio erakargarria, igarri ezineko egoera sortuko lukeelako nafar eskuinaren baitan.

Gai hauetan Del Burgo proposatzen duenaren kontra egotea dela zuzenena esan zuen behin Fermin Ziaurriek. Oraingoan ere horrela dirudi.

ahaztu gabe!



KANTALDIA

Iruña: Benito Lertxundik kantaldia eskainiko du gaur, hilak 17, ilunabarreko zortzi eta erdie-tatik aurrera Aita Salestarren aretoan. Lertxundik denbora franko darama Nafarroako hiriburuan abestu gabe. Gauzak horrela, abeslari bizardunaren zale amorratuek haren betiko kanta ezagunak egun grabatzen ari den diskokoekin tartekatuta entzunez ase ahal izanen dute euren *benitogrina*. AEK-k maiatzaren 31tik ekainaren 2ra arte Diman (Bizkaia) egingen duen AEK kanpaldaren aurkezpen kanpaldia Dimako aireportu zaharrean egingen dute, eta aurten batetik ekitaldi horren izaera nazionala eta bestetik horren izaera kulturala azpimarratu nahi dituzte helduen euskalduntze eta alfabetatzean dihardutenek. Euren irudikoz, kanpaldiaren aurkezpena Lertxundik Iruñean kantaldia eskainiz egitea primeran nabarmenduko ditu bi izaera horiek. Hala bedi.



asteko pertsonaiak



Joaquin Pascal
Iruñeko zinegotzia

■ Sanfermin lurrina dario Iruñeari. Sarasate paseabidean jada tonbola jartzen hasi dira, eta Joaquin Pascalek, Iruñeko Udaleko Kultura Saileko buruak, joan den asteartean 1996ko Sanferminetako jai egitaraua aurkeztu zuen. Haren irudikoz, «Sanferminek dagoeneko kalea bereganatu dute, eta orain kultura konkistatzen hasteko ordua heldu zaie». Joaquin Pascalek iragarri zuenez, sona handiko artistak izanen dira Iruñean datozen Sanferminetan; musika, dantza, erakusketak... kultur ekitaldi ugari izango dira uztaila hasieran. Esate baterako, Adinduen Egunean, uztailaren 11n, Norma Duvalek *Pasión por Norma* ikuskaria taularatuko du Arrosadia kiroldegian.



Javier Otano
Nafarroako presidentea

■ Nafarroako Gobernua eta Eusko Jaurlaritza zertxobait hurbilago daude joan den astelehenean. Egun horretan, Javier Otanoren gobernuak elkarlanerako marko iraunkorra eratzea onartu zuen. Ardanzen gobernuak biharamunean hori bera egin zuen. Bi gobernuak euren politikak bateratu ahal izanen dituzte hitzarmenean zehaztu dituzten arloetan (hezkuntza, ekonomia, kultura...), baina beti ere egungo sistema juridikoa errespetatuz. Bestalde, topagune honek ez du ahalmen eragilerik izanen. Hau da, erabakiak bakoitzak bere aldetik onartu beharko ditu. Akordioak Nafarroako eta EAeko parlamentuen eta Madrilgo Kongresuaren onospena behar du orain.

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenean ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrikizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gainetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Ameskoa

Arantzadua 94 Ameskoako Ikertaldeak kultur proiektu berria martxan jarri du

Bailarari buruzko gaiak jorrazteko artikuluak argitaratuko dituzte hilero urtean zehar

Arantzadua 94 Ameskoako Ikertaldeak kultur proiektu berria prestatu du. Bailarari buruzko hainbat gai jorrazteko, bost orrialdeko artikuluak argitaratuko dituzte urtean zehar hilero, ekainean eta abenduan izan ezik. Lehenengo bost lanak ia prest dira. Proiektu berriaren aurkezpena datorren larunbatean egingen du Arantzadua 94 taldeak.

Erredakzioa / Iruñea

ARANTZADUIA 94 Ameskoako Ikertaldeak *Te vas a enterar* izeneko kultur proiektu berria aurkeztuko du datorren larunbatean, hilaren 25ean. Bailarari buruz hainbat gai jorrazteko dituzten artikuluak bilduko dituzte proiektu honetan. Urtean zehar hamar argitaratuko dituzte, hilean behin, ekainean eta abenduan izan ezik.

Lehenengo bost lanak dagoeneko ia prest dira. Zudaireko parrokia du aztergai lehenengoak eta Lizarraldeko Ikasketa Zentrok kide Antonio Solak egina da. Euskal Herriko Unibertsitatean katedradun Ignacio Barandiaranek idatzi du bigarrena, sukari lehengaiari buruz. Arantzadua 94ko kide Balbino Garcia de Albizu du hirugarren lanak egile. 1834ko uztailetik 1835eko hil berera bitarteko epea aztertu du, «epe beltza gure historian», bere hitzetan. Luis Ignacio Viera Aranzadi taldeko kideak itsasla-



Bailarari buruzko gaiak jorrazteko dituzte Arantzadua 94 taldeak.

ARTXIBOKOA

katz fosilak hartu ditu aztergai bere lanean. Azkenik, Mikel Belasko filologoak eta Arantzadua 94 taldeko etnografia sailak Ameskoako herri hiztegia aztertu dute bostgarren lanean.

Gainontzeko bost lanei dagoeneko, dagoeneko zerrenda luzea prestatua dute Arantzadua 94 taldeko kideek. Hala ere, gaiak zehazteko daude oraindik. Taldeko bertako kideek edo kanpoko kolaboratzaileek egindakoak izan daitezke, hain zuzen ere. Edonola ere, Ameskoako bizitza eta historia izanen dute lan guztiek oinarri, baita Ameskoako

biztanleentzat interesa duten gai orokorragoak ere.

Lanok bost orrialdeko luzera izanen dute gehenez eta idazkera herrikoia izanen da. Honela, kultura bailarako biztanleengana hurbiltzea lortu nahi dute Arantzadua 94 taldeko kideek.

Te vas a enterar kultur programaren aurkezpena egiteko egitarau zabal prestatu du Arantzadua 94 Ameskoako Ikertaldeak. Datorren larunbatean, arratsaldeko ordu bietan, elkartasun bazkaria izanen da Barindanoko tabernan. Txartelak 2.000 pezeta balioko du. Ondo-

ren, arratsaldeko bostetan, programaren aurkezpena egingen dute. San Miguel Ikastetxeko aretoan izanen da. Aurkezpena Iñaki Perurenak egingen du. Halaber, Antonio Sola, Luis Ignacio Viera eta Balbino Garcia de Albizuk ere hartuko dute parte aurkezpen ekitaldi honetan.

Aurkezpena egin ondoren, lehenengo bost lanak banatuko dituzte bertan bildutakoan artean, baita guztiak biltzeko karpeta ere. Halaber, lan guztiak eta karpeta eskuratu nahi dituenarentzat, 1.000 pezetan izanen dira salgai. X

Leitza

Bihar hasiko da Kultur Astearen 18. ekitaldia

Rock kontzertua izanen da Leitzako frontoian

Erredakzioa / Iruñea

LEITZAKO KULTUR ASTEAREN aurtengo ekitaldia bihar hasi eta datorren igandean amaituko da. Bihar musikari eskainiko diote tarte handiena. Arratsaldeko sei eta erdietan, hain zuzen, Aralar Udal Musika Eskolako kideek kontzertua eskainiko dute zinemaren ondoren, gaueko hamaitzetatik aurrera eta herriko pilotalekuan, rock kontzertua izanen da, Berpiztu, Kashbad, Patagonia eta La Polla taldeekin.

Datorren igandean, berriz, bi erakusketa zabalduko dituzte, eguerdian biak. Bata udaletxeko aretoan izanen da, *Euskara be-*

tiko mintzoa izenburukoa alegia, eta aste osoan egingen da zabalik. Bigarren erakusketak ohi-tura zaharrei buruzko argazkiak izanen ditu protagonista eta Aurrera elkarteko aretoan ikusi ahal izanen da. Argazki hauen osagarri, Kultur Taldeko partaideak diren Jaione Astibia eta Itziar Alzelaik egin testua eza-gutu ahal izanen dute erakusketa bisitatuko dutenek.

Egun berean, arratsaldeko lauretan baina, xake txapelketa egingen dute jubilatuen elkartean. Ondoren, arratsaldeko zazpiak aldera, trikitixaren hotsarekin dantzan egiteko aukera izanen dute herritarrek plazan. X

Ilunberri

Zeharkaldia egingen dute bihar mendi bizikletaz

Bosgarren aldiz antolatu dute hainbat taldek

Erredakzioa / Iruñea

BOSGARREN aldiz Ilunberriko Norabide Zeharkaldia egingen dute bihar, mendi bizikletaz, Ilunberriko Mendarte Gazte Elkartek eta Zangoza Aldeko Udal Elkartek antolatuta. Bi ibilbide prestatu dituzte. Lehenak 30 kilometro izanen ditu eta ibilbidean zehar sei kontrol-puntu izanen dira. Bigarrenak, 20 kilometro eta lau kontrol-puntu. Ohi bezala, binakako proba izanen da. 15 urte baino gutxiago dutenek heldu batekin hartu beharko dute parte.

Izena emateko epea arratsaldeko 3.45etan zabalduko da, 4.45era arte, hain zuzen, kios-

koko plazan. Bikote bakoitzak 1.500 pezeta ordaindu beharko du. Proba hasi baino hamar minutu lehenago mapak banatuko dituzte antolatzaileek partehartzaileen artean: Arratsaldeko bostetan aterako dira txirridulariak eta amaiera arratsaldeko zortzietan izanen da. Ondoren, arratsaldeko zortzi eta erdietan, opariak zozketatuko dituzte kioskoko plazan.

Antolatzaileentzat parte hartzen duen oro irabazle bada ere, aurtengo ekitaldiak sari bat izanen du ibilbide motzean lehen dabilen den emakumeek osatutako bikotearentzat. Kaskoa eramateko esan diete partehartzaile guztiei. X

Antsoain

Euskal Jaiak ospatuko dituzte datorren astean zehar

Udalak, Eguzki Eder taldeak eta Euskararen Aldeko Patronatuak antolatuta

Erredakzioa / Iruñea

ANTSOAINGO UDALAK, Euskararen Aldeko Patronatuak eta Eguzki Eder dantza taldeak antolatuta, Euskal Jaiak ospatuko dituzte herrian datorren astean zehar. Asteartean, hasteko, Pello Añorga ipuin-kontalaria ariko da Ezkaba ikastetxeko liburutegian, arratsaldeko zortzietan, euskaraz.

Ostiralerako, hilak 24, berriz, egitarau zabal dago. Arratsaldeko hiruretan Takolo, Pirrutx eta Porrotx palazoak izanen dira Ezkaba ikastetxean, eta zortzietan, leku berean, Euskal Herriko janzkera izanen du mintzagai Ramon Garciak. Gaueko bederatzi eta erdietan bertso-afaria izanen da Parrilla jattetxean. Estitxu Arozena, Bittor Elizagaien eta Josema Leitza ariko dira bertsoetan.

Hilaren 25ean, goizeko hamarretan hasiko dira prestatutako ekitaldiak. Ordu horretan, hain zuzen ere, txokolatada izanen da Lapurbide parkean. Hamaika eta erdietan, leku berean, Alaitzu taldeak eta Ardanbera fanfreak alaituko dute giroa. Eguerdiko hamabi eta erdietan herri kirolak izanen dira bertan: kozkor biltzea, trontzalariak, txinga proba, zaku lasterketa, zamari lasterketa eta sokatira.

Maiatzaren 26a izanen da aurtengo Antsoaingo Euskal Jaien azken eguna. Egitaraua, hala ere, ez da beste egunetan baino txikiagoa izanen. Ekitaldiak goizean goiz hasiko dira, bederatzi-tan hain zuzen ere. Dianak izanen dira ordu horretan, gaitero eta txistularien laguntzarekin.

Goizean zehar ere, Lapurbide parkean, hamabost artisauen erakusketa izanen da. Zura, burdina, buzina eta bestelakoekin egindako bitxikeria eta tresnak izanen dira ikusgai eta baita salgai ere. Ez da eguneko erakusketa bakarra izanen hala ere; Ezkaba ikastetxeko ikasleek beste bat antolatu dute. Marrakzi, margo eta zeramikazko gauzak izanen dira ikusgai.

Eguerdian, berriz, kalejira izanen da. Antsoaingo Eguzki Eder eta Altsasuko Aitzindari dantza taldeek, Umetxea Zantantzar Txiki taldeak, Antsoaingo Panpinak taldeak, Ardatza Txistulari taldeak eta Antsoaingo gaitero taldeak hartuko dute parte kalejiran. Bukatzerakoan, elkarrekin izanen dira euren emanaldia aurkezteko prest Lapurbide parkean. X

Juan Coc,
Q'eqchi'-en printzea

Juan Coc, guatemalarren printzea

Guatemalako historia islatzen duen liburua idatzi du Pili Yoldik Coc nekazari eta liderrari buruz

Pili Yoldi kazetari nafarrak Don Juan Coc, Príncipe Q'eqchi' (1945-1995) liburua aurkeztuko du gaur Iruñean, joan den apirilaren 9an Guatemalan aurkeztu ondoren. Juan Coc liderraren bizitzaren bidez, Guatemalako azken 40 urteetako historia islatu nahi izan du nafarrak. Historia horretan, gerra zela-eta Mexikora aldeginako milaka eta milaka errefuxiatu itzulera da azpimarragarri. Pili Yoldiren liburuak errefuxiatu horien historia du oinarri.

Edurne Elizondo / Iruñea

PILI YOLDI kazetari nafarrak Don Juan Coc, Príncipe Q'eqchi' (1945-1995) bere argitalpen berria aurkeztuko du gaur Iruñean. Rigoberta Menchu Tum Fundazioaren, Espainiako Medicus Mundiren eta Entrepueblos Elkartearen artean finantzatu dute Guatemalako azken 40 urteetako historia islatzen duen Pili Yoldiren azken lana. Rigoberta Menchu bakearen Nobel saridunak idatzi du liburuaren hitzaurrea.

1990. urtean ikusi zuen kazetari nafarrak lehen aldiz Ertamerikako zerua. Nikaragua izan zen bere lehen jomuga. 1992. urteak El Salvadorera eraman zuen eta Guatemalara, berriz, 1993an aliegatu zen lehen aldiz, Serranoren estatu kolpea gertatu zenean. Hilabeteak eman zituen han. Euskal Herrira itzuli ondoren, 1994. urteko azaroan hartu zuen berriro Guatemalarako bidea.

Guatemalara ezezik, Juan Coc-engana eramango zuen bidea izan zen Pili Yoldik 1994ko azaroan hartu zuena. Guatemalako hiriburuko San Juan de Dios ospitaleko ohe batean ezagutu zuen. Leuzemiak etzanarazi zuen bertan hainbat eta hainbat urtetan zehar, hainbat eta hainbat guatemalarren liderra izandakoa. Bere ingurukoek, baina, kazetari nafarrak idatzi liburuak hainbat argazkik erakusten duten bezala gogoratzen dute Juan Coc: mehea, galtza beltzak eta atorra txuria gainean, txapela beltza batzuetan buruan, dotorea, berezia. «Karisma handiko gizona zen, nekazaria eta indigena. Miresten zuten».

Ospitale bateko ohe batetik hasi zitzaion Juan Coc Pili Yoldiri bere bizitzaren istorioa kontatzen. «Ezagutu nuenean arratsalde osoa eman genuen hizketan. Lehendabiziko haren ondorekin, beste arratsalde asko etorri ziren». Horietako batean esan zion kazetari nafarrak Juan Coc-



Milaka guatemalar errefuxiatu itzulera da Pili Yoldiren liburuaren gai nagusia.

MEDICUS MUNDI

elkarrizketa egin nahi ziola eta guatemalarrak onartu egin zuten. Amaierarik gabeko elkarrizketa izan zen, baina bukatu baino lehen harrapatu zuen herioak Juan Coc. Hiltzera Xaman etxaldera joan zen, bere jendearen artean hil nahi baitzuen. Han ikusi zuen Pili Yoldik azken aldiz. Xamango hilerrri berrian liderraren gorpua da lur hartu duen lehenengoa.

1995eko urtarrilaren 30ean zendu zen Juan Coc Xamanen —Aurora 8 de Octubre izena hartu zuen gero—, Alta Verapaz. Bere heriotzaren ondoren, Guatemala hiriburuan egindako elkarrizketa, Juan Coc-ek berak bere bizitzari buruz idatziriko eta familiak gordetako koadernoak eta Juan Coc-en senide, lagun eta

«Karisma handiko gizona izan zen Juan Coc, indigena, nekazaria eta liderra. Miresten zuten»

Mexikora gerra zela-eta ihes egindako guatemalarrak 1993. urteko urtarrilean hasi ziren itzultzen

alderdietako kideei egindako elkarrizketak zituen Pili Yoldik esku artean. Hori guztia liburu bihurtzeko aukeraz Rigoberta Menchu Tum Fundazioko kideekin mintzatu zen eta abian jarri zen jada kalean den Juan Coc, Príncipe Q'eqchi' (1945-1995) liburuak.

Gobernuarekin negoziatu zuen alfabetatugabea • Juan Coc 1945eko urriaren 12an jaio zen Uspantan herriko El Tesoro etxaldean, Quichen. Kolono baten seme, kolono izan zen bera ere. 600 lagunekin batera, San Antonio Tzeja komunitatea sortu zuen, baita La Luz de Servicios Varios Kooperatiba ere. San Antonio Tzejan Paulina Choc-ekin ezkondu zen Juan Coc eta sei

seme-alaba izan zituzten: Juan, Roberto, Maria, Ana, Braulia eta Magda.

25 urte bete zituen arte, alfabetatugabea izan zen guatemalaren artean lider bihurtu zen Juan Coc. Guatemalako gerrak San Antonio Tzejan harrapatu zuen. Komunitateko gainontzeko kideekin batera, Armadak euren bizitokia izandakoa nola kiskaltzen zuten ikusi behar izan zuten Juan Coc eta bere familiak. «Lur Kiskaliko Politika jarri zuen Armadak indarrean, zoritxarrez: sartu, herritarrak hil eta guztiari su eman. Honela gerrilla sunsituko zutela uste zuten», azaltzen du Pili Yoldik.

Gerrari ihes egiteko, mendian aurkitu zuten lehendabizikoz babesa San Antonio Tzejako 600 lagunek, Juan Coc buru zutela, 1983. urtean Mexiko aldera aldegin zuten arte. 1983ko urtarrilaren 5ean ateratu zen Juan Coc Guatemala eta Mexikoren arteko mugarantz. Bere atzean, 646 guatemalar.

Juan Coc-ek eta San Antonio Tzeja komunitateko gainontzeko kideek bezala, guatemalar askok hartu zuten Mexikorako bidea gerra zela-eta. Mexikon, Chiapas, Campeche eta Quintana Roo-ko estatuetan ezarri zituzten euren kanpamenduak. Hamar urte eman zituzten han. «Gehienek asmoa, Juan Coc-ena bezala, Guatemalara itzultzea izan zen beti. Gauza guztien gainetik, hori zen euren interesa, euren borrokaren xede bakarra, itzultzea». Mexikon izan ziren bitartean baina, euren burua ongi antolatzen ikasi zutela nabarmentzen du Pili Yoldik. «Nabaritzen da Guatemalan gelditu zirenen eta bertatik aldegin zutenen artean ezberdintasunik. Aurreratua goak dira Mexikon izan zirenak, kontzientziatuagoak daude, nahiz eta politikan ez sartu».

Mexikon zirela, hain zuzen, Batzorde Iraunkorrek eratu zituzten errefuxiatuek. «Nekazariak ziren guztiak, alfabetatugabeak gehienak, baina gogor egin zuten lan». Horietako kide izan zen Juan Coc. Euren lana, beste askoren artean, itzulera prestatzea izan zen. Horretarako, Mexikoko eta nazioarteko hainbat erakunderen laguntza izan zuten; hala nola Nazio Batuen Erakunde Errefuxiatuentzako Batzorde Nagusiarena.

Itzultzea betiko asmoa izan bazen ere, 80ko hamarkadaren bukaerarekin hasi zen indartzen. «Jaioterrira itzuli nahi zuten guatemalarrak». Batzorde Iraunkorretako kideak, beraz, Guatemalara joaten hasi ziren, Gobernuarekin negoziatzeko. Tartean zen Juan Coc. «Hasieran beldur handia zuten eta NBEko kideekin joaten ziren, babestuta». Hiru urte luzez egon ziren negoziatzen eta azkenik, akordioa sinatu zuten 1992. urteko urrian. 1993. urtean hasi ziren

«Itzuli nahi dut»

UKARREN jaioa da Pili Yoldi, kazetari eta idazlea. Kazetari lanak eraman zuen Ertamerikara lehen aldiz 1990. urtean. Nikaraguan hauteskundeak egin behar ziren eta bertara joan zen Euskal Herriko hainbat komunikabidetako berriemaile gisa aritzeko. El Salvadorren, berriz, Gobernuaren eta gerrillaren arteko bake akordioaren lekuko izan zen 1992an.

Lehenengoz Ertamerikara joan zenean bazekien hura ez zela bertara egiten zuen azken bidaia. «Ertamerikak harrapatu egin nau», dio kazetari nafarrak, «eta lagun asko ditut bertan». Azkenekoz joan den hilabetean egon da Guatemalan, bere liburua aurkezteko. Apirilaren 9an izan zen, eta Rigoberta Menchu bera ezezik, Medicus Mundiko ordezkariak, Aurora 8 de Octubre komunitateko ordezkariak, Juan Coc-en senideak eta lagunak ere bildu ziren bertan. «Bere aldeko omenaldia izan zen finean liburuaren aurkezpena. Mundu guztiak zuen hari buruz zer edo zer errateko».

Oraingoz Guatemalan salgai den Juan Coc, Príncipe Q'eqchi' (1945-1995) liburua —«Hona ere

ekarri nahi dugu, hemengo jende askorentzat ere interesa baitu»— ez da Pili Yoldik argitaratu duen lan bakarra. Lehenengo argitalpenak, Xabi Otero argazkilariarekin batera egindako *La laguna de Pitillas* eta *Los toneleros de Murchante* izan ziren, ingurugiroari buruzko lana lehenengoa eta etnografikoa bigarrena. Lorea taldearekin, ondoren, zaborra eta birziklatzeari buruzko dibulgazio lana egin zuen ikastetxeetan banatzeko. Gaur aurkeztuko duen liburuaren aurretik, Medicus Mundirekin egindako *Hegoaldearen bila* izan da Pili Yoldiren azken lana. Gobernuz kanpoko erakundeak egin izan bereko erakusketaren oinarri izan zen euskaraz eta erdaraz argitaratutako lan hori.

Argitalpen hauen egile izateaz gain, Egin, Euskadi Irratia, Radio Euskadi eta ETBko kazetari ere izan da Pili Yoldi. *Integral* aldizkariko kolaboratzaile lanean, halaber, hamar urte darabata jada. Asmo berriei buruz hitz egiterakoan, bestalde, Ertamerika du berriz buruan. «Urrikan hauteskundeak izanen dira Nikaraguan eta itzuli nahi dut».

Juan Coc, Q'eqchi'-en printzea

Mintzoak

Xamar

guatemalarrak itzultzen. Orain-
goz, aldeginako ehun mila gua-
temalarretatik 45.000 inguru
itzuli dira.

Victoria 20 de Enero eta Xaman •
Lehenengo guatemalarrak itzule-
ra ongi prestatu zuten errefu-
xiatuek. «Guatemala erditik sar-
tu ziren, mundu guztiak ikuste-
ko. Hori nahi zuten». 1993. ur-
teko urtarrilaren 20an, *Victoria 20 de Enero* izenez bataiatuko
zuten etxaldera ailegatu ziren.
Gobernuarekin sinatutako
akordioaren arabera, lurra erosi
behar zuten errefuxiatuek itzul-
teko, baita 200 familia inguru-
rekin kooperatiba sortu ere. Pili
Yoldik aipatzen duenez, hala ere,
«baldintza oneko maileguak
eman zizkieten lurra erosi ahal
izateko». *Victoria 20 de Enero*
etxaldea ez zen, baina, Juan Coc
eta berarekin ziren 200 familien
azken jomuga izan. Xaman
etxaldea erosi zuten Alta Verapa-
zen bertara bizitzera joateko.
1994. urteko urriaren 8an era-
man zituen Juan Coc-ek hara
berarekin ziren guztiak. Orduz
geroztik *Aurora 8 de Octubre* izan
zen Xaman. Juan Coc-en emaz-
teak ez zuen inoiz ezagutu,
1993ko azaroan zendu baitzen
Paulina Choc.



Errefuxiatuen itzulera gertaera garrantzitsuena izan da Guatemalako azken urteetako historian.

MEDICUS MUNDI

«Latifundisten esku dago lurra Guatemalan.

Lurrik txarrena baino ez diete saltzen

Mexikotik itzulitakoek»

1995eko urriaren 11 lagun hil eta 20 inguru
zauritu zituen Armadak *Aurora 8 de Octubre*
etxaldean

na eskaini die Mexikoko Gober-
nuak bertan gelditu nahi du-
ten errefuxiatuei, berritzeko
aukerarekin. On Juanen belau-
naldikoei Guatemalara itzuli
nahi dute baina 20 urteko gaz-
teek jaioterria gogoratu ere
ez dute egiten, Mexikon hain-
bat denbora eman ondoren.
Noski, bertan gelditu nahi du-

te», azaltzen du Pili Yoldik.

Guatemalako gerrillaren
(URNG) eta Gobernuaren arteko
bake negoziatioak orain urtebete
hasi ziren. Oraingoz, hiru akor-
dio sinatzea lortu dute, Indigenen
Eskubideena, Giza Eskubideena
eta Herri Sustraigabekoaren
akordioa. Joan den urtarileko
hauteskundeen ondoren, Go-

bernu berria dago Guatemalan
eta Alvaro Arzu da presidente. Pili
Yoldik azpimarratzen duenez,
egin du negoziatioak aurrera
jarrai dezan hainbat keinu jada:
«Gobernuaren ordezkari nego-
ziatio prozesuan gerrillari izan-
dako politiko bat jarri du eta be-
deratzi jeneral kargutik kendu
ditu. Hori Guatemalan, sekula-
koa da».

Bake negoziatioen bidez akor-
dioak lortu badira ere, lurrare-
na konponbiderik gabeko auzia
da oraindik ere. Pili Yoldik na-
barmentzen duenez, «lurra da
Guatemalako duen arazo nagusia
oraindik ere. Latifundisten
esku dago. Latifundistek lurrik
hoberenak eta emankorrenak
dituzte eta herriak, aldiz, lur pus-
ka bat besterik ez du familia
mantentzeko. Halaber, Mexiko-
tik itzultzen ari diren guatema-
larrei Gobernuak lurra eroste-
ko maileguak eman badie ere,
nork saltzen du, finean, lur hori?
Latifundistek. Eta, noski, lu-
rrik txarrena saltzen diete». Aza-
zoak arazo, irailerako Gua-
temalako bake akordioa sinat-
uta egonen dela uste dute ber-
tan, Pili Yoldik plazaratzen due-
nez.

Gerraren arrastoak, baina,
ez dira oraindik desagertu. Pili
Yoldiren liburua inprentan
sartze-ko zorian zegoenean,
beste sarraski batek nazioarte-
ko komunikabideetako albiste
bihurtu zuen berriro ere Gua-
temala. 1995eko urriaren 5ean
Camilo Lacan Chacian subte-
nientea 25 soldadurekin sar-
tu zen *Aurora 8 de Octubre*,
Juan Coc-en etxaldean. Hamai-
ka lagun hil eta beste hogeit-
inguru zauritu zituzten. Camilo
Lacan eta bere soldaduak atxi-
lotu eta euren aurkako proze-
sua abian da. Rigoberta Men-
chu Tum Fundazioa akusazioko
partaide da. Juan Coc-en etxal-
dean hil eta zauritu zirenak go-
goan izan ditu Pili Yoldik bere
liburuan. X

Ez dira pasatuko

■ Zera... txirrindula-
riak, txirrindulariak ez
dira Itoitzen barna pa-
satuko Frantziako (eta
inguruetako) itzulian.
Gauza da lemixiko ibil-
bidearen berri eman zu-
telarik Ariberraino argi
zuten, handik aintzina
ilun, omen. Aipatu zituz-
ten bi bide posibleetan
Itoitz zen pasa beharra
Agoitzera bidean Iruñea
helburu.

Baina ez, hautatu bi-
dean ez dute, azkenik,
Itoitz ikusiko; segur begi
bixtan diren mendí zau-
riak itsusi zaizkiela te-
lebistan edota arazoak
saiestu nahian, naski. *Le
Tour*-ekoak axari zorrot-
zak beitra irudi kontu-
tan. Balizko ezbaletan
sar aintzin, gibelera jo,
berant baino lehen...
zaloiki bezain ixilki.

Oro ikusgai eta azter-
gai... guzia hurrantetik so
eginez eta bertako lagu-
nei galdeginez bakarrik
dira erabakiak hartzen,
zer gerta ere.

Halere, aurtengoan,
bazterrak ezonduz...
nork segurtatzen daie
halakoren ardiak ez di-
rela bide erdian izanen
azken mementoan? Edo
urliaren behiak, behor-
rak edota ahuntzak?
Zeren behiak eraman be-
har badira bordara ha-
lako orenetan, nork dako
galaraziko Mendizabale-
ko bordariari konpara-
zione?

—Zerengatik? Zer zi-
klistak...? Eee, oooo...
zaude itxantpatez...! He-
rriaren nago eta beti atratut
oren gontan, atitu duzu?
Eta gala ez badut eiten
Gorriak eztauku esne
xortak e ematen...! De-
bru ergelak, pasitan ibil-
tzea bezik ez tute eiteko!!
Soizu gero, ni lanean ei-
niz... e? LANEAN...!

Ez, ez beitra kabalak
hain errez gobernatzen
Le Tour delako Txuri jau-
nak ez badaki ere.

Eta Aezkoatik landa
kasu Ibañetan behehitiko
ahuntzekin! Ez beitra
hauek ere gauerdiko ki-
dearen ez tula izaten ahal
tropolaren barnean su-
pituki agerturik! Oyu-
yuiama!

Ez pues, Itoitz barna ez
dira pasatuko baina...
halere eta egiaren erra-
teko, pozik gira hala de-
lako... asmatzen al du-
zie Itoitzko herriaren Pan-
tani aintzinaturik? ■



Rigoberta Menchu, Pili Yoldi eta Rosenda Sales liburua Guatemalan aurkeztu zutenean.

MEDICUS MUNDI

Xanti Begiristain

Euskarak ez omen dakar
dirurik

■ Lekunberriko Jaian Jai pilotalekuan:

—¡Mil a seis!, ¡mil a seis!, ¡mil a seis colorau!
Honako hauxe entzuten zitzaizen behin eta berriz artekariei. Gogaiturik zegoen euskaltzale batek horrelaxe galdetu zion haietariko bati azkenean:
—Batzuok badakizue euskaraz, ezta?
—Bai, jakina, euskaldunak gara eta!
—Eta orduan zergatik ez dituzue behin ere abesten euskaraz apustuak, hemen, hainbeste larraundar euskaldunen artean?
—Badakizu, betiko ohitura... jendeak hobeki ulertuko ote digun... Bestaldetik ere, enpresak ez gaitu batere bultzatzen horretara, eta azkenean, noski, ba, utzikeria...

—Oso ongi, oso ongi! Zerorrek esan duzu, utzikeria...! —Horrela gelditu zen atsekabaturik euskaltzale gizarajoa.

Beste egun batean Iruñeko Labrit zaharrean:

—¡Milazul, milazul, milazul!

—Bai izen arraroa!

—pentsatu zuen euskalduntze prozesu erdialdean zebilen euskaldunberri gazte batek—. Mila, Milagros, Milagritos, bai ezagutzen nituen; baita Mirari ere, baina Milazul delako izenik ez dut sekula santa entzun!

Bitartean, artekariak han jarraitu zuten Labrit pilotalekuan inolako lotsarik gabe, «mil azul, mil azul, mil azul», nahiz eta euskaldun ugari ere bazegoen.

Eta azkenik, Arbizuko frontoian beste horrenbeste gertatu da behin baino gehiagotan. Azkenetariko bat, orain dela gutxitxo:

—¡Milazien!, ¡milazien!, ¡milazien colorau! —Bai, zeta letra eta guzti, esaleak (gehienak behintzat) euskaldunak baitira.

Bai ba, jaun-andreak. Hauxe da Hego Euskal Herrian, behinik behin, daukagun errealitate triste eta tamalgarria euskarari dagokionez. Hainbat aldiz entzun dugu eta kontatu digute euskaldunak oso pertsona lehiakor, dema, erronka eta apustuzaleak direla, baina apustu eta dema horiek erdaraz egiten diren unetik aurrera, ez dakit ba nik, zein punturaino hitz egin dezakegun *euskal dema* ospetsuei buruz.

Asegarce pilota enpresa sortu zenez geroztik, beti saldu nahi izan digute *euskal pilotaren* irudia, alegia, euskal pilotagintza indartu eta indartzen ari direla, pilotariak askoz egoera hobean eta duinagoan bizi direla, eta azkenik, euskal pilotaren afera mundu zabalera hedatzen ari eta hedatuko dutela. Ez dakit hori izanen ote den enpresa berri horiek (Alti barne) euskal pilotari eman nahiko dioten proiektzioa, baina hola baldin bada, esan beharra dago ongi samar lortzen ari direla.

Nik beti asoziatu dut euskal pilotagintza euskararekin, banaezinak bezala, baina dagoeneko gauzak, antza, aldatu dira eta birmoldatu dituzte. Nork ez du gogoratzen orain dela gutxi arte Euskal Herrian jasan dugun, Asegarce bultzatu eta ETBk sustatutako TVEren monopolioa? Bai horixe! Bizpahiru urtez aritu behar izan dugu pilota partiduak erdara hutsean irensten. Bestela telebistari ahotsa kendu eta irrati euskaldunen bat piztu. Gainontzean bagenekien zein zen beste konponbide bat, dena itzali eta deus gabe gelditu. Bestela ordaindu eta pilotalekura joan.

Egia esan, nik uste dut jokamolde hori euskararentzat eta euskal pilotarentzat iraingarria dela. Pentsa dezatela, besteak beste, haur asko zaletzen ari dela pilotarekin eskola arruntetan, pilota-eskoletan eta abar. Bestetik, euskaldunberri asko izan daiteke pilotazale. Beraz, uste dut arrazoi nahikoa badagoela euskararen arloa beste modu



batean jorrazteko. Errespetu eta begirune askoz ere handiagoa islatu beharko lukete oraingo enpresak euskara eta euskaltzaleekiko, zeren eta euskal pilota ez baldin bada euskalduna Euskal Herrian, non izanen da, Mexikon ala? Esaterako pilotalekuan, baita herririk euskaldunetan ere, artekariak beti edo ia-ia beti erdara hutsean aritzea, euskaldunontzat mesprezua da, eta era berean, Ceceaga, Arreche eta abar jartzea dortsal eta markagailuetan; Beloki eta Eugi apika euskaldunagoak ere?

Kritika erakitzaila eginez, esanen nuke enpresa eta enpresari guztiek egin lezaketela gehiago euskararen mesedetan (Carlos Argiñano euskaltzale eta ospetsua barne) eta gauza bera komunikabideek, kulturako pertsona ospetsuek, politikariek eta abar. Adibidez, harrituta gelditzen naiz ikusirik horrelako gauzak behin ere ez dituela kritikatzeko Xabier Euzkitze esatari prestuak.

Gauzak horrela, jarraitu beharko dugu pentsatzen Hertzainak musika taldeak zioen bezala, euskal pilotak rock-and-rollak bezalaxe ez duela behin ere dirurik emanen. ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Lacort eta
mende hasierako
kazetaritza Iruñean

■ Basilio Antonio 1851.eko ekainaren 14an sortu zen Beran. Aita Jose Lacort Fontillaina zuen, Oskako Biergetik Bortziritara buruz abiatu jostun bat, eta bertako Martina Larraide Pikabearekin ezkondu zena. Militarra sarturik, Baztan Ballean ibilia zen III. Karlistadan, handik ere Kuba aldera joan zelarik. Badajozen zegoela errepublikaren aldeko 1883.eko abuztuan jazo matxinadan partehartzea zela bide Portugalera ihes egin behar izan zuen. Nafarroara itzuli aurretik Ruiz Zorrillak sortu *El País* eguneroko errepublikazalean idazteari ekin zion Madrilan, horrezkero lagako etzuen iharduera, bada Iruñeko Sananton karrikako 72. zenbakian ezarri baitzituen bizitoki nahiz bere argitalpenen moldetegia. 1898.eko maiatzean *El Porvenir Navarro* izeneko astekaria agertu zen lehen aldiz bere zuzendaritzaren gerizapean. Bertan botatakoek nonbait etzuten gehixegi atsegin Iruñeko apezpikutegiko burua zen Antonio Ruiz-Cabsl Rodríguez, eta ber urteko azaroan gotzaiak kazetaren irakurtzea debekatu zuen suminaren sumin, heretikoa, sorginkeriatik hurbil hurbileko gauza, eskandalagarria, erorbide eta zeinek daki zenbat gaitzen iturria bazelako. Arrazoiak arrazoi, esandako guzien azpian Eskolapioetan agituriko hainbat haragikeria lizun salatzea bide zegoen. Erljio gizon eta emakumeen moral zikoitzak bortizki asaldatzen zuten Berakoa, batik bat joku berotik ateratako dirua aisaki onartzen zutelako. Kritikak aurtikitzerakoan etzitzen lazkatuaren izenak berekiko gordetzen, eta askotan frai Arkangel Lizarrakoa minorita edp frao Giberto Blanco agustindarra ikusmiran izan zituen esate baterako, hurrengo apezpikuaren gogoaitasuna areago hant zezakeena, José López Mendoza-García gotzaila agustindarra ere bazelako. Azken honen aurrekoak xedatua orobat berrestez gainera Lacort *nominatim* eskomikatu zuen, baita astekaria sustatzen zuen oro, berdin kazetari, harpidedun, inprimatzale, saltzale, erosle edota irakurlea zen. Bestaldetik Jenaro Pérez moso gobernadore zibilak bere egin zuen elizaren epaia, eta galerazi zuen astekaria, Iruñeko agintariek, zibilek nahiz erlijiosoen, Lacorten paperak zukuruzturik, manifestaldi erraldoia antolatu zuten, liberalismoari aitziko ekintza garbia gertatu zena. Halaz guziz Madrileko biltzarretan, Senatu nahiz Gorteetan, *El Porvenir Navarro* astekariaren debekaldiak sortu iskanbila lakarrak Nafarroako gobernadore zibilarengandik Lacortek beste argitalpen bat kalezteko baimena lor zezala erraztu zuen, *La Nueva Navarra* del-tuko zena hots. Honetan ere apezpikuaren altaramenduak idoitatu zuen argitalpena, eta 1901.eko otsailaren 25eko dekretuaren bitartez eskomikua atezatu zuen, bigarren astekari honen irakurtzea heriozko pekatua zela ezin argiago utzirik, erresuma zaharreko eliza guztietan irakurtzeko zein atean jartzeko agindu zuela. Orduko gainontzeko aldizkako argitalpenen jarrera ofizialarekin zihoan, nolana ere zen, *La Nueva Navarra* zuzen eta artez erasotzeko arta berezko eginkizuntzat hartu zuena Benito Valencia zuzendu *La Vieja Navarra* astekaria izan zen. Euskaraz Nafarroako eskolatan lekuz kanpoko gauza zelako zeharo debekatu zuen gobernadore zibila izaniko hau —Ramón Lapesquera bere *Navarra insólita* idazlanean jaso legez— Lacorten aurkako erasoak 1900.eko abenduaren 23an agertzen hasi zen astekari atzerakoian. Lacorten lagunak zirenen zerrendak ere agertzen zituen beldurgarri: Iruñeko Apestezia eta Rubio izeneko tabako saltzalea, Tafallako Erasotarrak, Faustino Garaioa eta beste, Kortesko José Castillo. Urdiango idazkaria zen Andrés Agirre, Luzaideko Grazian Intxauspe, eta abar luzexka bat. Dena den beratarren ingurukoek hirugarren argitalpen bat prestatu zuten, *El azote*. Tamalez orduko ongileen tolerantziak hiru aldizkarietako aleki bat ere ez gureganatzeko aisatu zuen, eta egun Lacorten burutapenak ezagutu ahal izateko Zaragozako *El clamor* argitalpena jotzera beharturik gaude. Lacort Errepublikaren aldeko atxikimendu guzien bultzatzaile izan zen mende hasierako Iruñean, eta hauta talde baten burua izan zen. Iruñeko Udalean zinegotziren bat eskuratu zuena. Bihotzekoak jota 1908.eko uztailaren 5an zendu zen, Iruñeko hilerriz zibilean lurperatu zutelarik. ■



Udaberri txapelketako hirugarren jardunaldiko partida, 1996ko maiatzaren 3an jokatu.

Carlos Perez Marchal, 1.830 ELOkoa—

Rafael Ruiz Escobar, 2.010 ELOkoa.

1.e4,e5; 2.Zf3,Zc6; 3.Ab5,a6; 4.Aa4,Zf6; 5.0-0,Ae7; 6.Ge1,b5; 7.Ab3,0-0; 8.c3,d5; 9.d5,Zd5; 10.d4,d4; 11.Zd4,Zd4; 12.Dd4,Ab7.

Beltzak ederki ibili dira eta ongi kokaturik daude. Agian, txuriek 'Gd1' dute onena, presio pixka bat sartzearen.

13.Ae3,c5; 14.Dd2,Ze3.

Damak trukatzek gazteluari irekiko lioke bidea. Alfilen arriskua gero eta nabariagoa da.

15.De3,Ad6; 16.Dh3,Dg5; 17.Ac2,h6; 18.Za3,c4; 19.aG-d1.

Ikus koadroa. Beltzek berehala erabakiko dute partida, posizioari etekina ateraz.

19...aG-e8; 20.Zb1,Ac8; 21.Df3,Ag4; 22.Dc6,Ad1.

'Ge8' eginez gero, 'Ac2' jokaldiak emanen lieke abantaila beltzei.

23.Gd1,Ac5; 24.Df3,Ge6; 25.Zd2,De2.

Txuriek zapaltzeko kolpe bikaina.

26.Ae4,Ge4.

Matearen mehatxuarekin jokatuz, txurien erabateko suntsipena. Ez dago zer eginik. Amaitu da.



Euskararen Eguna Lizarraldean

Bertako ikastetxe publikoetako A ereduko ikasleak ospatzen ari dira hiru egunez, Lerinen eta Lizarran

Seigarren urtez jarraian, Lizarraldeko ikastetxe publikoetako A ereduko haurrak Euskararen Eguna ospatzen ari dira. Joan den asteartean Lerinen bildu ziren inguruko haurrak eta ostegunean, berriz, Lizarran. Euskararen Eguneko ospakizunak datorren asteartean amaituko dira, Lizarran. Antolatzaileek egitarau zabala prestatu dute 1.000 haur inguru biltzen dituen besta egun hauetarako: jokoak, bazkaria, pailazoak eta buruhandiak, besteak beste.

Edurne Elizondo / Iruñea

LIZARRALDEKO ikastetxe publikoetako A ereduko haurrek Euskararen Eguna ospatzen ari dira seigarren urtez jarraian. Aurten, hiru egunetan banatu dituzte Euskararen Eguneko ospakizunak. Hasteko, joan den asteartean, Lerin, Mendavia, Lodosa, Andosilla, San Adrian eta Saragudako A ereduko haurrak bildu ziren Lerinen. Atzo, berriz, Lizarra, Abartzuza, Salinas, Lezaun, Villatuerta, Oteitza, Allo, Deikaztelu eta Arronizko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako ikasleak elkartu ziren. Bukatzeko, ikastetxe bereko lehen hezkuntzako hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren mailako haurrak Lizarran bilduko dira, datorren asteartean, hilak 21.

Euskararen Eguna aurten mila haur inguru bilduko ditu orotara hiru egunetan zehar. Horregatik, hain zuzen, erabaki dute ospakizunak hiru egunetan banatzea antolatzaileek, «ospakizunak arintzeko». Hala ere, egun bakoitzeko egitaraua bera izanen da. Hortaz, datorren asteartean Lizarran bilduko diren ikastetxeetako haurrek, asteartean Lerinen eta atzo, berriz, Lizarran bildu ziren haurrek ekitaldi berberak gozatu ahal izanen dituzte. Jokoak izanen dira nagusi, baina izanen da bertze egitekorik ere egun guztian, egitarau zabala prestatu baitute aurten ere Euskararen Eguneko antolatzaileek.

Goizeko hamarretan hasiko dira, beraz, asteartean, Lizarrako Euskararen Eguneko ekitaldiak. Sarrera modura, ikastetxe edo herri bakoitzeko haurrek kanta bana abestuko dute euren burua aurkeztu eta ongi etorri gisa. Segidan, hamaiketako hartuko dute, datozen ekitaldi guztietan gogoz parte hartu ahal izateko. Izan ere, hamaika jokotan parte hartzeko aukera izanen dute bertan bildutako haurrek, soka-tira, zaku lasterketak eta abar. Ondoren, ordu bata aldera, bazkaria izanen da. Arratsaldean, berriz, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek euren ikuskizuna aurkeztuko dute, arratsaldeko ordu



Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak Lizarran izanen dira asteartean.

ARTXIBOKOA

bi eta erdiak aldera. Ordu bate inguruko emanaldia eskainiko dute pailazok. Egunean zehar, gainera, buruhandiak ibiliko dira, eta surik gabeko zezen suzko bati esker, azkenik, entzierro txikia egingen dute Lizarran bildutako haurrek.

Euskara Lizarraldean bultzatu • Euskararen Eguna seigarren aldiz ospatzen ari dira aurten Lizarraldeko A ereduko

haurrak. Egun hau —edo hauek— ospatzeko ideia Lizarran bertan sortu zen, asteazkeno bertako Irakasleentzako Laguntza Zentroan biltzen zen irakasle batzuen ekimenez. «Elkartzeko eta euskaraz mintzatzeko aukera polita izanen litzatekeela pentsatu zuten eta Euskararen Eguna antolatzea erabaki zuten», azaldu digu Toño Alfaro Lizarrako Remontival Ikastetxe Publikoko kideak. 1990. urtean lehen

aldiz antolatu zutenetik, beraz, urtero ospatu dute Euskararen Eguna Lizarraldean bertako ikastetxe publikoetako A ereduko ikasleek.

Euskararen Eguna urtero leku batean ospatzea zen hasieran antolatzaileen asmoa, baina helburu hori ezin izan dute bete. Izan ere, leku askotan ez dago azpiegitura egokia halako jaia antolatzeko eta euskarari buruzko jarrera ere ez da leku guztietan

berdina, Toño Alfaro azpimarratu duenez. «Leku batzuetan besteetan baino arazo gehiago dago Euskararen Eguna antolatzeko». Beraz, Lizarran ospatu dute Euskararen Eguna urtero orain sei urte sortu zenetik, iaz izan ezik, Lodosan egin baitzuten iaz.

Egun honen bidez lortu nahi dituzten helburuak argi eta garbi azaldu ditu Alfaro: «Euskara bultzatzea, noski, baina batez ere euskararekin zerkusirik duten oroitzenak sortzea haurren gain. Hori da gure helbururik garrantzitsuena; haurrek euren oroitzen onak euskararekin lotzen badituzte, gu kontent gara jada». Azken bost urte hauetan behintzat lortu dutela uste du. «Ikasleek oso maitea dute Euskararen Eguna», azpimarratu du Toño Alfaro Remontival ikastetxe publikoko kideak.

Ikasleek ez ezik, gainera, ikasle horien guztien gurasoek ere hartzen dute parte egun honetako ospakizunetan, baita ikastetxeetako irakasleek ere. Bala-tzea egiteko orduan, beraz, pozik dira Euskararen Eguneko antolatzaileak, Toño Alfaro plaza-ratu duenez. «Haurrek gogoz hartzen dute; beraz, guztiz finkatuta eta sustraituta dagoela erran dezakegu». Aurtengoa, hortaz, ez da, zalantzarik gabe, Lizarraldean ospatuko duten Euskararen azken Eguna izanen, Alfaren idurikoz. X

D ereduak bi urte

EUSKARAREN EGUNA azken bost urteotan Lizarraldeko ikastetxe publikoetako A ereduko ikasleek ospatzen duten jaia da, euskara bultzatzeko asmoz. Toño Alfaro Lizarrako Remontival Ikastetxe Publikoko kideak azaldu duenez, «euskarak gora egin du azken urteotan inguruan». Aurtengo ikasturtean, hain zuzen ere, lau ikasle berrik eman zuten izena ikastetxe horretako G ereduan, hamabostek A ereduan eta 23k D ereduan, Toño Alfaro plazaratutako datuen arabera.

D ereduak izan da ikastetxean ezarri den azkena. Bi urteko ibilbidea baino ez du atzean, baina Toño Alfaro azpimarratu duenez, «goranzko bidean da, finkatzen ari da». Iaz sortu zenean, hemezortzi ikasle eman zuten izena eta aurten, erran bezala, 23k.

Gorakadarik nabarmenena, hala ere, orain arte, A ereduan gertatutakoa izan da. «Hasieran matrikulazioaren herena izan zen, erdia gero eta orain erdia baino askoz gehiago». D ereduari, baina, etorkizun

politak iragartzen dio Toño Alfaro.

Bere ustez, A ereduaren bidez euskarak alde honetan zuen «izen edo fama txarra» desagertu da. Ondorioz, D ereduak ere finkatzen hasi da Alfaren idurikoz. Hori dela eta, datozen urteetan ere gora egingen duela uste du Remontival ikastetxe publikoko kideak.

A ereduan diren ikasleek ikasgaitzat hartu dute euskara. Txikienez lau ordu dituzte astean zehar. Lehen Hezkuntzako ikaslearen artean, berriz, lehen eta bigarren

mailakoek hiru ordu eta erdi ematen dituzte euskaraz astean zehar eta gainontzekoek, azkenik, hiru ordu.

Lizarraldean euskarak duen egoerari buruz iritzi asko dagoela onartu du Toño Alfaro, baina bera baikor da. «Itxaropentsu izateko arrazoiak badaudela uste dut. Hobetzeko bidean dagoela uste dut». Euskarazko irakaskuntzaren inguruan, hala ere, sortu da arazo eta polemikarik ere, ikastetxe publikoetako D ereduaren eta Lizarrako ikastolaren artean, hain zuzen ere.

◆ **Asisko Urmeneta** ◆ Komikigilea

«Nafarroarekin batera galdu genuen azken iparra»

Argia' astekaria argitaratzen ari da egunotan 'm Pellot, Biba Festa' komiki liburua, Euskal Herriko historia inoiz kontatu gabea edo ahaztu samarra marrazkien bidez irudikatuta. Asisko Armeneta da egilea, nahiz eta horrelako lanak eskatzen duen material-bilketa lanerako kolaboratzaile ugari eta kalifikatuen laguntza izan duen.

Alberto Barandiaran / Iruñea

Lanez gainezka ari da egunotan marrazkilari iruindarra, 12 kapitulu izango direlako Argia-rekin aterako direnak. Gehienek euskaldunon inguruko pasadizo bitxiak, lekukotasunak eta gertaera ez oso ezagunak irudikatzen dituzte, eta Txema Larreak, Joxemiel Bidadorrek eta Xamarrek emaniko materiala izan du Asiskok marrazkiendako oinarria.

■ **Noren asmoa izan zen horrelako historia apokrifoa egitea?**

Betidaniko asmoa izan dugu horren ezagunak ez diren istorioak argira ateratzea. Kronologikoki ez genuela egin nahi, hori segurua da, garai ilunenak justu interesgarrienak direlako eta mende honi dagozkionak hobekien dokumentatuak daudenak direlako. Beraz, kronologikoki egitea baztertua, hasi ginen aztertzen nola egiten ahal genuen, handik eta hemendik bildutako istorioei haririk eman behar ote genien edo ez... Azkenean ezetz erabaki genuen, eta horrek askatasun handia eman digu komikia egiteko.

■ **Isurriak aurretik bilduta zintuz, beraz.**

Ez, aurretik ez, baina aspaldiko ideiak bagenituen, adibidez Kar-

los Enperadoreak Nafarroako mandazain batekin euskaraz egin zuela: bagenekien zein liburutan zen hura, eta zer egin horrekin. Eta hori bezala, ez dakit zenbat istorio sueto. Argia-koengana joan ginen, eta plan batzuk eztabaidatu ondoren, nola egin erabaki genuen. Saltoka-eta ibiltzea ideia polita dela iruditu zaigu, askatasuna ematen baitu gero gauzak egiteko. Gidoia jende askoren lana izan da. Nik ezagutzen nituen istorio batzuk, baina atzean aritu dira Joxemiel Bidador, Txema Larrea, Xamar eta beste asko: marrazkilari bakarra ni naiz, baina ideia guztiena.

■ **Asmoa, azken finean, zein da? Gauza bitxia egitea, zerbait barregarria, zerbait serio samarra era barregarritz egina?**

Alde batetik, hizkuntzaren apologia egin nahi izan dugu, eta egin nahi izan dugu ekialdetik, erakusteko-edo Euskaditxoko hiru probintzia horietarik aparte badela Euskal Herriak, eta Historian barna gauza handiak eman izan direla ekialdean. Baita irri eginaraztea ere ahal dugun neurrian, nahiz eta, gaiaren arabera, zaila izan den batzuetan. Hori da asmoa, ongi pasaraztea, baina benetako gauzak kontatuz. Jendea esan behar zaio estetiki askatasun handiz eginiko lana izanik ere —hau da, edozein pertsonaia edo giro marrazteko batzuetan ez dugu ezer kontsultatu—, testuetan lotu gatzaiak historia idatzari, ahalik eta gehien. Hor ematen ditugun datu guztiak, batzuek gezurrezkoak badirudite ere, egiazkoak dira, lehenbiziko kosmogonia hori salbu.

■ **Ekialdetik eginga da, beraz. Euskal Herri osoa hartuta ez da gelditzen txiki samarra?**

Ez, mendebaldeak deus gutxi eman izan diolako Euskal Herriaren historiari berriki artio. Pertsonaia batzuk eta gauza batzuk



Asisko Urmeneta, artxiboko argazki batean.

kendurik, benetan oso interesgarriak izan direnak, gaur egun dugun desoreka mende honi dago kiola esan daiteke: ekialdeak pisu handiagoa izan du mendebaldeak baino. Dugarik ez da garrantzia izan duela Nafarroak erresuma independente bakarra izateak, munduarendako erreferentzia Nafarroa izan delako. Hori garrantzia eman nahi izan dugu, Nafarroa galtzean azkeneko iparra galdu genuelako.

■ **Nahiz eta aurretik ezagunak izan, gauza batzuk harrigarriak suertatuko zitzaizkizuen.**

Bai, jakina. Hasteko, Kanadari zegokion Eskozia Berrira iritsi ziren lehen misiolari frantsesek euskarazko hitzak entzun zituzten, Mik-Mak, algonkin eta irokianak —bertako biztanleak— joan zitzaizkielako esanez «adixki-

des, adixkides, ania, ania...». Bertakoek europarrekin mintzatzeko euskaldunen hizkuntza baliatzen zuten. Jakina, ez zen euskaldunen hizkuntza, baina bai bertakoen eta euskaldunen arteko hizkuntzen nahasketa. Pierre Lancrek berak aipatu zuen gauza bera. Gaur egungo Kanadako frantsesek erabiltzen duten hitza al-tze animalari izena emateko origina da, eta orein-etik dator. Garai hartan esaten zen: «troko origina, troko atouray», hau da, «atorra, oreinaren truke». Bitxikeriak dira nahi baduzu, ez baitugu ezer berezirik errebindikatu nahi izan, baina bai halako bitxikeriak argitaratu atera. Adibidez, euskaldun franko aritu ziren tangoaren inguruan. Europa guztiko apaizak tangoaren kontra kexuka ari ziren garaian Aita Santuak berak

s o s l a i a

Hau da Asisko Urmenetaren bigarren komiki liburuxka, Ekialde Urruneko lelendak eta Erraondo lanen ondotik. Beti atzera begira, eta notzibait bere buruari ere galdetu izan dio ea zergatik ez duen egiten gaurkoak zerbait. Erantzun ere berak erantzuten du: «Uste dut badela hainbertze gauza ezagutu beharrekokoak edo ezagutaraztekoak, eta batzuetan geure buruari ere azaltzeko gaur egungo egoera ez dela betikoa izan, hori barnerrazteko. Uste dut oso garrantzitsua dela dibulgazio lana. Ikerlari eta historialari akaso sobera daude, baina gero lan horiek nora tristen dira?».

Hamabi kalerretan banatuta argitaratuko du Argia-k komikia, eta azkenarekin azalak izanen dira. Gero, seguruenik, album gisa ere aterako da, negurako edo. Egileek diotenez, bertze album baterako adina material ematen du orain arte bildutakoak.

Bilketa lan handia egin behar izan dute egileek: zenbait gauza bilduak zizuten, baina berriro jo behar izan da iturrietara, datu gehiago ateratzeko. Biltzaileek Asiskori eman diote material guztia, eta gero honek komikia egin du.

ikusi nahi izan zuen bere aurrean dantza, debekatze edo baimentzeko, eta bere aitzinean dantzatu zuena Ain el vasco edo el lecherito izan zen.

■ **Beraz, esan daiteke ahalegina izan dela euskaldunok eduki baina ezagutu ez ditugun izen mitiko horiek ezagutarazteko, berreskuratzeko?**

Gure historia arras ornogabea da, eta gaur egun ere arras atomizaturik dago. Baina mendetan barna ibilitako hainbat euskaldunen ibilerak ezezik, historia ofizialak ebatsi izan digun pasarte zenbait ezagutzeko egin dugu hau, pertsona edo gertaera horiek errebindikatu nahi baititugu ludikotasunaren aldetik, goxatzeko gu baino lehenago ibili diren hainbat euskaldunekin, bitxikeria gisa.

P A N E
LUCRANDO

ZALDI EROA

